

## II. ERANSKINA

### Erantzukizunpeko adierazpenak

- Erakundea ez dagoela azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 3 artikuluan zehaztutako kausetako bati lotuta.
- Laguntza-eskaeraren xede den establezimenduaren kokapena eta izena, eta eskaeraren xede den establezimendua altan emanda dagoen Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren epigrafea.

ESTABLEZIMENDUA	KOKAPENA	EJSN-AREN EPIGRAFEA

- 2020ko martxoaren 14tik abenduaren 31ra bitarteko plantilla osoari buruzko datuak (informazio horretan, gizonen eta emakumeen kopurua bereiziko da) eta haren kategoria. Halaber, laguntza-eskaeraren xede den establezimendu edo lantokiko langile bakoitzaren gizarte-segurantzako zenbakia adieraziko da.

ESTABLEZIMENDUA	LANGILEAK, GUZTIRA	KATEGORIA	GIZARTE SEGURANTZAKO FILIAZIO-ZENBAKIA	KONTRATUAREN DATA

- Laguntza-eskaeraren xede den lantokia edo establezimendua EAEn kokatuta dagoela, 2020ko martxoaren 14a baino lehen abian zegoela eta dirulaguntza eskatzen den datan abian jarraitzen duela.
- Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dion epai irmo bidezko zehapen penal edo administratiborik jaso eta ez duela horretarako desgaitzen duen legezko ezein debekurik.
- Ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako ezein itzulketa- edo zehapen-prozeduratan. Sartuta badago, prozeduraren edo prozeduren identifikazioa jakinarazi beharko du.
- Ez dagoela zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluari jarraikiz.
- Erakunde eskatzaileak ez duela administrazio publiko baten edo gehiagoren % 50etik gorako partaidetza (zuzenekoa edo zeharkakoa).

- Deialdi honetan erakunde onuradun izateko ezarritako betekizunak betetzen dituela.

Ez du xede eta helburu bera duen ezein laguntzarik jaso ezein administrazio publikotatik.

Xede eta helburu bera duten honako laguntza hauek jaso ditu (identifikatu erakunde emailea(k) eta zenbatekoa(k))

Erakunde emailea	Emandako zenbatekoa

Xede eta helburu bera duten honako laguntza hauek eskatu ditu (identifikatu eskaera egin zaien erakundea(k) eta eskatutako zenbatekoa(k))

Erakunde emailea	Emandako zenbatekoa

(BAIEZ adierazi dagokiona)

“minimis” araubideari lotutako laguntzak lortu ditu, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera, 2019, 2020 eta 2021eko zerga-ekitaldietan.

*Erantzuna baiezkoa bada, erakunde emailea(k) eta zenbatekoa(k) identifikatu behar dira*

Erakunde emailea	Emandako zenbatekoa